



ZIENTZIA, UNIBERTSITATE
ETA BERRIKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN
Viceconsejería de Universidades e
Investigación

EBAZPENA, Zientzia eta Berrikuntza sailburuordearena, Ikertzaile doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako laguntza berrietarako 2025-2026 ikasturterako laguntzen hautapen-prozesuan onartutako eta baztertutako lagunen behin-betiko zerrenda onartzen duena (Ikerketa Orokorra).

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuaren 2025eko uztailaren 22ko Aginduaren bitartez doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktorego aurreko programako laguntzak berritzeko eta laguntza berriak emateko deialdia egin zen, eta laguntza horiek arautu ziren 2025-2026 ikasturterako.

Agindu horren 28. oinarriaren arabera, onartutako eta kanpoan geratutakoen zerrenda, Zientzia eta Berrikuntza sailburuordearen ebazpen baten bidez gauzatuko da.

Aipatutako oinarriaren arabera, ebazpen horretan bertan elkarrizketa pertsonalak egiteko daten berri emango da. Elkarrizketa hauek arlo bakoitzari dagokion berariazko aholku batzordeak ebaluatuko ditu.

27. oinarriak aurkeztu beharreko dokumentazioa ezartzen du. Horrez gain, artikuluko horren 7. atalak zehazten du Doktoretza Programan behin betiko onarpena 2025ko azarorako lortzea espero denean 2025eko azaroaren 15a baino lehenago –egun hori barne– helarazi beharko dela onarpen ez-baldintzatuen ziurtagiria Zientzia Politikako Zuzendaritzara.

Horregatik guztiagatik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- I. eranskinean jasotako laguntza berrietarako prozesuan onartutako pertsonen zerrenda onartzea.

Bigarrena.- II. eranskinean jasotako laguntza berrietarako prozesuan ez onartutako eskaeren berri ematea, horretarako dagokion arrazoiekin.

RESOLUCIÓN del viceconsejero de Ciencia e Innovación, por la que se aprueba la relación definitiva de personas admitidas y excluidas en el proceso de selección de ayudas nuevas para el Programa Predoctoral, de Formación de Personal Investigador no doctor correspondiente al curso 2025-2026 (Investigación General).

Mediante la Orden de 22 de julio de 2025, del consejero de Ciencia, Universidades e Innovación, se regularon y convocaron las ayudas nuevas y renovaciones para el Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador no doctor correspondientes al curso 2025-2026.

La base 28 de la citada Orden establece que la relación de personas admitidas y excluidas en el proceso de selección de ayudas nuevas, se efectuará mediante resolución del viceconsejero de Universidades e Investigación.

Dicha base establece que en dicha resolución se indicará la fecha de la realización de las entrevistas personales a valorar por los comités asesores específicos correspondientes a cada una de las áreas.

La base 27 establece la documentación preceptiva en la solicitud de ayudas nuevas e indica, en su apartado 7, que cuando se espere obtener la admisión no condicionada al Programa de Doctorado para noviembre de 2025, la persona solicitante deberá remitir certificación de su admisión definitiva a la Dirección de Política Científica antes del 15 de noviembre de 2025 incluido.

Por ello,

RESUELVO:

Primero.- Aprobar la relación de personas admitidas en el proceso de selección de ayudas nuevas que figura en el Anexo I.

Segundo.- Aprobar la relación de solicitudes excluidas en el proceso de selección de ayudas nuevas con expresión del motivo de exclusión que se recoge en el Anexo II

**ZIENTZIA, UNIBERTSITATE
ETA BERRIKUNTZA SAILA**Zientzia eta Berrikuntza
Sailburuordetza**DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN**Viceconsejería de Ciencia e
Innovación

Bigarrena.- III. eranskinean jasotako elkarrizketa pertsonalak egiteko behin betiko datak onartzea.

Tercero.- Aprobar las fechas definitivas de realización de las entrevistas personales que aparecen en el anexo III.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 122. artikulua jarraituz, bere aurka gora jotzeko helegitea aurkeztu ahal izango da, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, www.euskadi.net egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante el consejero de Ciencia, Universidades e Innovación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de www.euskadi.net, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma electrónica.

Adolfo Morais Ezquerro

Zientzia eta Berrikuntza sailburuordea
Viceconsejero de Ciencia e Innovación